

Seme-alabei “Zelan gaur ikastolan?” galdetzeko 25 modu

1. Zer da ikastolan gaur gertatu zaizun gauzarik interesgarriena? Eta okerrena?
2. Kontaidazu gaur ikastolan barrea eragin dizun zerbait.
3. Aukera edukiko bazenu, noren ondoan eseriko zinateke gelan? Eta noren ondoan ez zinateke eseriko? Zergatik?
4. Zein da zuretzat ikastolako lekurik gogokoena?
5. Esaidazu zein den gaur ikastolan entzun duzun hitzik arraroena.
6. Gaur zure irakasleari deituko banio zer esango lidake?
7. Lagundu al diozu gaur ikastolan norbaiti? Zelan?
8. Norbaitek lagundu al dizu zuri? Zelan?
9. Kontaidazu gaur ikastolan ikasi duzun zerbait.
10. Gaur zerk egin zaitu zoriontsu?
11. Zer iruditu zaizu aspergarria?
12. Estralurtarren espaziontzi bat zure gelara iritsi balitz gaur eta norbait eramango balu nor eramatea gustatuko litzaizuke?
13. Gustatuko al litzaizuke ikastolan inoiz jolastu ez duzun norbaitekin jolastea?
14. Kontaidazu gaur gertatu zaizun gauza on bat.
15. Zein izan da gaur irakasleak gelan gehien errepikatu duen hitza?
16. Zure ustez zer gehiago egin edota ikasi beharko zenukete ikastolan?
17. Eta zer egin edota ikasi beharko zenukete gutxiago ikastolan?
18. Norekin uste duzu izan zintezkeela jatorragoa gelan?
19. Jolastokian non jolasten duzu gehien?
20. Nor da gelako lagunik dibertigarriena? Zergatik?
21. Zer izan da gaur jatorduko unerik onena?
22. Bihar irakaslea izango bazina zer egingo zenuke?
23. Ba al dago norbait zure gelan hutsarte behar duena?
24. Norbaiti lekua aldatzeko aukera izango bazenu nori aldatuko zenioke? Zergatik?
25. Esaidazu arkatza erabili duzun eguneko 3 momentu desberdin.